



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

## ARETO FUTBOLEKO EUSKAL BATZORDEA

2010/11 DENBORALDIA

### 12 ZIRKULARRA

#### ARETO-FUTBOLEKO EUSKAL LIGA ERREGULATZEKO ARAUAK

**LEHENENGOA.-** 2010/11 denboraldiko ARETO-FUTBOLEKO EUSKAL LIGAn Zirkular honetan agertzen diren arauak berariaz aginduko dute, federazioaren ordenamendu juridikoa osatzen dutenei kalterik egin gabe.

**BIGARRENA** Jokoaren arauak FIFAk argitaratuko ditu.

**HIRUGARRENA** Euskal Ligako partidu guztiak ASTORE PROSALA, modeloko baloi ofizialarekin jokatu beharko dira derrigorrez.

Partidua hastean, etxeko taldeak 5 baloi izan beharko ditu gutxienez. Horietatik, 2 arbitroarentzat izango dira, eta beste 2 kanpoko taldearentzat.

Xedapen hau betetzen ez duen klubak Lehiaketako Epailearen zigorra jasoko du.

**LAUGARRENA.-** Taldeek partidua hasteko ezarritako ordua baino ordu erdi lehenago aurkeztu beharko dira jokalekuan. Ordu erdi lehenago ere aurkeztu beharko zaizkio lizentziak epaileari, eta kronometratzailea.

Jokalekuan ezin izango da egon bestelako jarduerarik partidua hasi baino hamabost minutu lehenago, kanpoko taldeak berotze-ariketak egin ditzan.

**BOSGARRENA.-** Partiduaren hasieran talde bakoitzak gutxienez sei jokalaria eta taldeko ordezkari bat aurkeztu beharko ditu jokalekuan. Bestalde, etxeko taldeak zelaiko ordezkaria izan beharko du derrigorrez, eta behar bezala identifikatuta egon beharko da, bi arbitroen esanetara. Kategoria honetan parte hartzen duten klubek, **Entranatzaile "ES"** lizentzia izan beharko dute Nivel 1 titulazioduna gutxienez , eta partidu guztietan aurkeztu beharko dute.

Behar hau ez bada betetzen dagokion jurisdikzio-organoak falta arinatzat hartuko du.

Klubek talde bakoitzeko aldiberean hamabost jokalaria gehienez eta zortzi gutxienez izan dezakete. L.T.tan gazte mailako talde ez dutenek, haien artean gutxienez hogeiki beko ( 91/01/01 tik aurrera jaiotakoak) hiru jokalaria izen behar dituzte



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

**SEIGARRENA.-** Areto-futboleko Arbitroen Euskal Batzorde Teknikoak zuzenduta, dagokion lurralde Batzordeak izendatutako epaile batek eta kronometratzaile batek arbitratuko dute partida.

**ZASPIGARRENA.-** Partiduak 20 minutuko bi zati izango ditu. Bi zatiak kronometratuko dira, eta gehienez 10 minutuko atsedena egongo da.

**ZORTZIGARRENA.-** Arbitroei ordainsariak ordaintzeko beharra ez bada betetzen, Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplinazko Erregimenaren Arautegiaren 63. eta 51. artikuluek aurreikusitako zigorrak ezarriko dira.

**BEDERATZIGARRENA .-** parte hartzen duten taldeak aipatzen diren hurrengoak dira AURRERA DE VITORIA, CD, AZPEITIKO AFTKE, ESKORIATZA KE, GERNIKAKO LAGUNAK NATURGAS ENERGIA, GOIERRI KE, HIRUKIDE IKASTETXEA, INTER CD, KUKUIAGA ETXEBARRI FS, KURUTZIAGA IKASTOLA, LAGUN ONAK, MALLABIA FT, ORTZIRI FS, SANTURTZI FS, SASIKOA DURANGO y UPV ALAVA.

**HAMARGARRENA.-** Lehiaketa-sisteman talde bakarra dago, puntutara eta joan-etorriko partiduekin. Guztira hogeita hamar jardunaldi izango dira.

**HAMAIKAGARRENA.-** Igoera eta jaitsiera postuen lehiaketa sistema, "Comite Nacional de Fútbol Sala" delakoaren menpe gaude, Nazional B Mailaren arauak argitaratu arte.

**HAMABIGARRENA.-** .Lehiaketa honetan aginduko duten gainerako arau arautzaileak, eta Zirkular honetan jaso ez direnak, Espainiako Futbol Erreal Federazioaren Arautegian jasotakoak izango dira.

2010 ko irailak 14, Bilbon

  
JON ANDER GAMBOA AGUIRRE  
Secretario General